


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao



Artista elkartuak

Sormena babestuz

Azkuna Zentroak Artista elkartuak programa jarri du abian sormen artistikoa babesteko; beren diziplinetan ibilbide sendoa duten artistak babesten eta laguntzen ditu, lengoia artistiko desberdinei buruzko begirada inspiratzailea nabaria bada beren lanean. Lankidetzarako marko berria, Zentroaren programazio-ildoekin bat datorrena, kultura garaikiderako eta sormen-prozesuen babeserako sarbide-plataforma izatea indartzeko.

Parez pare ibili

Artistak funtsezkoak dira gizarte eraldatzeko, arte bizien bidez gizarte kritikoa sortzeko. Beren proposamenek begirada propioa dute egungo munduari buruz, eta beste mundu batzuk pentsatzeko, irudikatzeko eta adierazteko aukera eskaintzen dute.

Gonbitaren bidez eta bi urtean zehar, artistei lagun egin nahi diegu beren ibilbidean. Inguruneko mapa kultural artistikoko erreferente aktiboak dira, eta zeregin hori indartu nahi diegu, komunitatearen arteko trukea erraztu kulturako eta gizarte-eragileekin, artista hauen proiektzioa indartu beste sareekin loturak sustatuz, eta prozesu hauen eragina onartu eta Zentroak hauen egiteko moduen bidez ikasi. Parez pare ibiltzeko programa da.

2019ko urtarrilaz geroztik, Sra Polariska eta Oscar Gómez Mata dira Azkuna Zentroko artista elkartuak.

Sra Polariska

Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe dira Sra Polariskaren sortzaileak. Alaitz

Arenzana Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da. Bere lehenengo obretatik argi utzi zuen artearen mundutik gertu zeuden ikerketa- eta sormen-arloaren inguruko bidea hartuko zuela, irudiaren interes industrialagoen bidea hartu ordez. Aldi berean, dokumentalak, publizitatea eta telebistako programak egiten ditu. María Ibarretxe Arte Dramatikoko diplomaduna da, sormen eszenikoaren eta performancearen mundutik dator, eta zenbait konpainiatako dantzaria eta aktorea ere bada. Bere lankidetzaren bidez, bi mundu hauen iragazkortasuna bitarteko toki batean kokatu da. Dantza eta arte eszenikoen ikerkuntzan diharduen Ruemaniak taldeko kideak dira biak.

Sra Polariskaren ikus-entzunezko obrak ekintzako artea, sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa aztertzen ditu. Haien lanean, beste espazio eta hizkuntza batzuk bilatzen dituzte, eta gorputza eta kokatuta dagoen espazioarekin gorputzak duen harremana dira beti protagonista nagusiak. Narrazioaren ohiko egituretatik ihes egiten dute, eta ikusleei itxitako kontzeptuetatik ere bai. Obrak anbiguoak dira berariaz. Gorputzari lotutako rolekin jolasten dute, beha dagoen begiradari egonkortasuna galarazteko, ikusten duen zera horren aurrean jarrera bat hartzera



Sra Polariskaren ikus-entzunezko obrak ekintzako artea, sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa aztertzen ditu





behartzeko. Ikuslea erabat murgiltzen da haiek sortutako munduan, espazioan. Espazio hori zabalik dago. Era askotako interpretazioak izan ditzake, pantailan gertatutakoari begira egon diren begiradak beste.

Artista elkartua da [Sra Polaraiska](#), eta bere sormen-prozesuarekin jarraituko du erreferenteak sortuz eta emakume helduen ahalduntzea ardatz gisa hartuz.

Horretarako, programazio hedatua eta belaunaldi-artekoa egingo dute lantzen dituzten piezekin, adinarekin zerikusia duten uste estetikoak eta jarrerakoak ikusgarri bihurtu, eta zalantzan jartzeko. Ikus-entzunezko pieza bat da, *No hay nada más moderno que envejecer* izenekoa, adineko emakumeen gorputzak gizarte-ostrazismora kondenatuta daudenez, horiei begiratzeko gonbita da. Bestetik, *El Atlas de los cuerpos* proiektua dago, animaziozko filma da, diktadura frankistaren garaian hazitako 60 urtez gorako sei emakumeren unibertso pertsonala, sexuala

eta afektiboa aztertzeko gonbita egiten duena.

El musical, cuerpo, movimiento, adolescencia, amor y fantasmitas lanaren bidez, Sra Polaraiskak gai honi buruzko begirada zabalagoa eskaintzen du, belaunaldi desberdinetan maitasunaren inguruan egondako heziketa aztertuz, gorputzaren eta agertokiaren ikuspegitik.

Eta *Hamacas* instalazioaren eta lantegi kolektiboaren bidez, parte hartzeko belaunaldi arteko jarduera bat proposatzen dute, belaunaldi bateko baino gehiagoko taldeak elkarrekin harremanetan jarri, eta oihalarekin objektu-eskulturrak egiteko. Historia desberdina duten pertsonen arteko topaketa sustatuko da horrela, entzunaldiaren eta behaketaren bidez.

Oscar Gómez Mata

Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Euskal Herrian hasi zen antzerki-jardueretan, eta 1987an Legaleón-T konpainiaren sortzaile-kide

izanik, ikuskizunak sortu zituen horiek in 1996ra arte.

1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizun sinatu ditu bertan. 2013. urteaz geroztik, arauzko irakaslea da Manufacture-n, Suitzako frantseseko antzerki eskolan. (HETSR) Suitzako antzerki sari nazionala 2018an.

Oscar Gómez Matak aurten garatuko du Azkuna Zentroarekin lankidetzan Laboratorio de derivas. Deriba esatean hiri-geografian pentsamenduak eta emozioak duten noraeza esan nahi da. Edonork egin ditzakeen ibilaldi-moten aurkibide-bilduma moduko bat.

Lehenengo zati honetan, Azkuna Zentroko artista elkartu gisa, [Oscar Gómez Matak](#) proiektu honetan planteatzen du «pentsamendua errebindikazio garaikide gisa, beharrezko eta egiazko une gisa, norbere buruaren eta kanpoan dagoenaren arteko topaketa gauzatzen den une gisa.

////////////////////////////////////
[Oscar Gómez Matak proiektu honetan «pentsamendua errebindikazio garaikide gisa» planteatzen du.](#)

////////////////////////////////////

Pentsamendua barneko gotorleku intimo gisa, zaindu, sustatu, defendatu, tokiz aldatu eta eragin behar dudana».

Oinez ibiltzeari begiratzen dio, «gure urratsen erritmoak gure pentsatzeko moduarekin zerikusia du, geure buruari hitz egiteko moduarekin, inguratzen gaituena geure buruari kontatu eta azaltzearekin, gure inguruan mundua existitzeko egiten dugun moduarekin» azaldu du. Ezustekoa esnatzea da kontua.



©Steeveluncker_Web

Berrasmatu eta probatu denok dakiguna eta ezagutzen duguna: dena lotuta dago, gauza batek beste batera zaramatza beti.

Eguneroko hiriko paisaiak, infra-arina behatzea eta aztertzea landu. Zoria, sinkronikotasuna eta serendipia piztu. Esperientzia horretatik abiatuta, material pertsonala nola sortzen den ikusi.

Proiektu hau [Oscar Gómez Matak](#) eta Esperanza Lópezek egin dute. Lehenengo etapa apirilaren 16, 17 eta 18an eta maiatzaren 27tik ekainaren 8ra izango da.

Lehenengo etapa honen helburua da Deriben Lehenengo Katalogoa egitea eta Azkuna Zentroko publikoarekin esperimentatzea. Horrez gain, workshop erako topaketa bat izango da arte-erloto profesionalekin, era horretako antolakuntzak sormen-materialaren eragile izateari buruz elkarrekin hizketan aritzeko.

EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Sra. Polaroiska

Emakume jakintsuen kontseilua



Sra. Polaroiska. *No hay edad para el ritmo.* Azkuna Zentroa 2019

Artista Az Kideak diren **Sra Polaroid** kideak azken urteetan garatzen ari diren lan-ildoaren harian, genero-ikuspegitik erreferenteak sortzen eta ahalduz aritu dira bereziki, eta, orain, kolektibo artistikoak **Jakintsuen kontseilua** zikloa proposatzen digu. Sei topaketako zikloa adineko emakumeekin, hainbat esparrutako profesionalak guztiak: antropologoak, fisikariak, idazleak, ingeniariak, biologoak, musikagileak, zinegileak, artistak, poetak, irakasleak, ile-apaintzaileak, jostunak, erizainak, bizizaleak... Elkarrizketa-sorta baten bidez, emakume horiek euren bizitzako eta laneko esperientziak helaraziko eta partekatuko dizkigute, erreferente bihurtzeko moduan. Jakinduria biltzeko eta partekatzeko proposamen bat da.

Antolaketa intimo eta atsegin baten bidez, **Sra Polaroid** proposatu duen esperientzian, konplizitatea eta estimua jakintza eskualdatzeko tresna dira. Saio bakoitzean, gonbidatuaren araberrako leitmotib bat dago -edari edo janari bat-, esate baterako, egoskinak, teak, infusioak, edabeak, pastak eta askariak, etxeetan eta aretoetan betidanik egin izan diren bilereki ohore eginez, horietan aholkuak eta jakintzak partekatzen baitziren. Formula horrekin, artistek azpikoz gora irauli nahi dute bilera eta espazio horiek baliogabetzeko eta mespretxatzeko joera; berreskuratu egin nahi dituzte, eta esparru publikora zabaldu, era horretan euren balioa aldarrikatuz.



Hurrengo kontseilua:
Abenduak 10 asteartea

Hurrengo emakume jakintsuaren izena gure webean argituko dugu:
azkunazentroa.eus



 cargocollective.com/srapolaroid

 [sra_polaroid](https://twitter.com/sra_polaroid)



ALAITZ ARENZANAK eta **MARIA IBARRETXEK** eratzten dute **SRA POLAROID** kolektibo artistikoa. Beren

obrak zinema esperimentalak, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Arteak saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofia Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.



Artista Az Kidea programak sorkuntza bultzatzeko ildo berri bat da, zeinek laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza artistikoei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei.

EUSKARA

AZAROA > ABENDUA 2020



Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO



ARTE GARAIKIDEA / AZ-KIDEAK ARTISTAS ASOCIADAS A
AZ **ABE. 1** (astr.)

Sra. Polaroiska

Emakume jakintsuen kontseilua

Emakume jakintsuen kontseiluak, Sra. Polaroiska talde artistikoak (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe) Az-Kideak Artistas Asociadas a Az gisa proposatutako topaketa-zikloak, bosgarren saioa egingo du.

Orain arte, lau jardunaldi egin dira, hainbat gairi buruzkoak: antropologia soziala, euskarazko poesia, euskal feminismoa edo errefuxiatuen egoera soziala, betiere ikuspegi feministatik. Saio horietan, jakintsu hauek parte hartu dute: Dolores Juliano, Argentinan jaio (1932) eta Videlaren estatu-kolpearen ondoren Bartzelonara erbesteratutako antropologo soziala; Amaia Lasa, poesia euskaraz idatzi zuen lehen emakumeetako bat; Garbiñe Mendizabal, genero-berdintasunerako aditua eta aholkularia; eta, azkenik, Luisa Menéndez, Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataformako ekintzailea.

Azken urteotan Sra. Polaroiskak garatu duen lan-ildoarekin bat etorritz, hau da, genero-ikuspegitik erreferenteak eta ahalduntzea sortzea ardatz gisa hartuta, *Emakume jakintsuen kontseilua* sei topaketez eratutako zikloa da, hainbat esparrutako profesionalak diren emakume helduekin egitekoa. Elkarrizketen bidez, emakume horiek beren bizi- eta lanbide-esperientziak transmititzen eta partekatzen dizkigute, eta erreferente gisa agertzen dira. Jakinduria biltzeko eta partekatzeko proposamena.

**AZ-KIDEAK
ARTISTAS
ASOCIADAS A AZ
PROGRAMAREN
BIDEZ, SRA.
POLAROISKAK
BERE SORMEN-
PROZESUAREKIN
JARRAITUKO DU,
ERREFERENTEAK
SORTUZ ETA
EMAKUME HELDUEN
AHALDUNTZEA
ARDATZ GISA
HARTUZ.**

////////////////////////////////////

Abenduak 1, asteartea

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik, aurrez
azkunazentroa.eus
webgunean izena emanda,
leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

 cargocollective.com/srapolaroiska

 sra.polaroiska

Emakume jakintsuen kontseilua Luisa Menéndez



Sra. Polaroiska, Az-Kideak Artistas Asociadas a Az dira 2019tik. + info: 67. orr.

Sra. Polaroiska. Emakume jakintsuen kontseilua

Sra. Polaroiska Kolektiboa (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe), Az-Kideak Artistas Asociadas a Az, adineko emakumeen erreferenteen sorrerari eta ahalduzaz buruzko bere sorkuntza-prozesua gauzatzeko ari da. Gaur egun, *Emakume jakintsuen kontseilua* proiektua garatzen ari dira; belaunaldien arteko topaketa bat, hainbat arlo sozial eta profesioletan erreferente diren adineko emakumeekin.



Alaitz Arenzanak eta María Ibarretxek eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektiboa. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako arteak, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Arteak saria irabazi zuten, sorkuntza egindako jardueraren onspen gisa, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.



cargocollective.com/srapolaroiska



[sra polaroiska](#)

Oscar Gómez Mata *Makers*

Oscar Gómez Matak, Az-Kideak Artista Asociado a Az-ko, *Makers* pieza sortzeko lanean jarraitzen du, uda hasieran Zentroan eta orain La Chaux-de-Fonds-eko (Suitza) TPRn (Théâtre Populaire Romand) egonaldia izan ondoren.

Argiari, denborari eta maitasunari buruzko lana da *Makers*, eta gainezkatzeko komikoaren eta emozio-euspenaren artean egiten du bidaia, zentzugabekeriaren eta egiaren artean. Piezaren sorkuntza-prozesuari dagokionez, sortzaileak bi alde bereizten ditu: batetik, alde epikoena, non antzerkia «espioitza-modu bat den, mundua zaintzeko ikerketa-modu bat», eta, bestetik, alderik intimoa, «sentimenaren azpian ezkutatuta dagoen sentiberatasuna hautematen saiatuz». *Makers* 2021eko apirilean estreinatuko da Azkuna Zentroko arte eszenikoen *EscenAZ* denboraldian.

Proiektu honetaz gain, Az-Kideak Artista Asociado a Az gisa, Oscar Gómez Matak *Deriben katalogoa* aktibatu du, *Espe López* artistarekin batera. Katalogoak hainbat deriba edo ibilaldi proposatzen ditu, eguneroko hiri-paisaien behaketa eta esplorazioa lantzeko. Orain, koaderno bat sortzen ari dira, proposatutako deribak biltzeko. Deriba horietako batzuk esperimentatu nahi dituztenek Az Infon eska ditzakete.



OSCAR GÓMEZ MATA (Donostia, 1963) Suitzan bizi da eta bertan lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, 1987an Legaleón-T konpainiaren sortu baitzuen beste kide batzuekin batera, eta ikuskizunak egin baitzituen haiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak egin ditu bertan. Suitzako antzerkiko sari nazionala eskuratu zuen 2018an.



alakran.ch

Az-Kideak Artistas e Investigador@s Asociad@s a Az programak sorkuntza eta ikerkuntza bultzatzen ditu, eta laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza garaikideei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Gonbidapen bidez, hainbat artista eta ikertzaileekin aritzen gara, haien prozesuan laguntzen eta partekatzen, haien proiektzioa sustatzen eta beste sare artistiko batzuekin lotzen.

EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2021



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea

ARTE BISUALAK / ARTISTA AZ-KIDEAK

URT. 19 (astr.)

Sra. Polaroiska

Emakume jakintsuen kontseilua

ARTISTA AZ-KIDEEN

PROGRAMAREN ESPARRUAN,
SRA. POLAROISKAK BERE
SORMEN-PROZESUA AMAITUKO
DU, ERREFERENTEAK SORTZEA
ETA EMAKUME HELDUEN
AHALDUNTZEA ARDATZ GISA
DUENA.



Sra. Polaroiskak (Alaitz Arenzanak eta Maria Ibarretzek), Azkuna Zentroko Artista AZ-Kideek *Emakume jakintsuen kontseilua* proiektua amaituko dute, hainbat esparrutako emakume helduekin eta profesionalekin izandako topaketen zikloaren azken saioarekin. Zenbait elkarrizketaren bidez, emakume horiek beren bizi- eta lanbide-esperientziak transmititzen eta partekatzen dituzte, eta erreferente gisa agertzen dira.

Proiektuaren zati publikoa garatu ondoren, Sra Polaroiska lanean ari da *Emakume jakintsuen kontseiluari* amaiera emango dion koadernoarekin. Koaderno horretan, emakume horiek partekatutako jakinduria jasoko dute, zikloa osatzen duten saioetan artistek sortu dituzten kontakizun grafikoekin batera. [Abigail Lazkoz](#), [Conxita Herrero](#), [Bea Aparicio](#), [Juana García](#) eta [Naiara Goikoetxea](#) izan dira lehen bost saioetan jakintsu bakoitzaren ondoan izan diren ilustratzaileak.

Guztira, sei jardunaldi dira, hainbat gairi buruzkoak, Sra. Polaroiska azken urteotan garatzen ari den lan-ildoarekin bat datozenak, bereziki bideratuta dagoena gURTARRILA-ikuspegitik erreferenteak sortzera eta ahalduntzera.

Saioetan jakintsu hauek hartu dute parte: [Dolores Juliano](#) gizarte-antropologoa, Argentinan jaioa (1932) eta Bartzelonan erbesteratua Videlen estatu-kolpearen ondoren; [Amaia Lasa](#), poesia euskaraz idatzi zuen lehen emakumeetako bat; [Garbiñe Mendizabal](#), gURTARRILA-berdintasunerako aholkularia eta espezialista; [Luisa Menéndez](#), Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaiko Plataformako ekintzailea; [Adelina Moya](#), Historian doktorea eta Bilboko Arte Ederren Fakultateko irakasle titularra; eta, azkenik, azken saioan gurekin izango dugun jakintsua, eta web orriaren bidez azalduko duguna.



MARIA IBARRETXE eta **ALAITZ ARENZANAK** eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektibo artistikoa. Beren obrak zinema esperimentala, ekintzako artea, eta sorkuntza

eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofia Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.



Urtarrilak 19, asteartea

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte




 cargocollective.com/srapolaroiska

 [sra polaroiska](#)

PROGRAMA
EUSKARA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2021



Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Sra. Polaroiska.

Artista AZ-Kideak

Emakume jakintsuen kontseilua

SRA. POLAROISKAK
KOADERNO BATEAN LAN
EGITEN DU. BERTAN,
PARTEKATUTAKO
GONBIDATUEN JAKINDURIA
BILTZEN DA, ARTISTA BATZUEN
KONTAKIZUN GRAFIKOEKIN
BATERA.



Sra. Polaroiskak (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe), Azkuna Zentroko artista AZ-Kideek beste bi topaketa proposatu dituzte hiruhileko honetan, Consejo de sabias proiektuaren barruan. Elkarrizketa hauen bidez, gonbidatutako emakumeek beren bizi- eta lanbide-esperientziak transmititzen eta partekatzen dituzte, eta erreferente gisa agertzen dira.

Alde publiko horrekin batera, Sra. Polaroiska koaderno baten argitalpenean ari da lanean. Bertan, gonbidatutako emakumeek partekatutako jakinduria jasoko da, zikloko saioetan [Abigail Lazkoz](#), [Conxita Herrero](#), [Bea Aparicio](#), [Juana García](#) eta [Naiara Goikoetxea](#) artistek sortu dituzten kontakizun grafikoekin batera.

Saioetan jakintzu hauek hartu dute parte orain arte: [Dolores Juliano](#) gizarte-antropologoa, Argentinan jaioa (1932) eta Bartzelonan erbesteratua Videlaren estatu-kolpearen ondoren; [Amaia Lasa](#), poesia euskaraz idatzi zuen lehen emakumeetako bat; [Garbiñe Mendizabal](#), genero-berdintasunerako aholkularia eta espezialista; [Luisa Menéndez](#), Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaiko Plataformako ekintzailea; [Adelina Moya](#), Historian doktorea eta Bilboko Arte Ederren Fakultateko irakasle titularra; eta, Arantxa Urretabizkaia, idazlea eta euskaltzaina. Hurrengo gonbidatuen izenak web-orriaren bidez jakinaraziko dira.

[Consejo de sabias](#) proiektua bat dator Sra. Polaroiska azken urteotan garatzen ari den lan-ildoarekin, zeina bereziki erreferenteak sortzera eta ahalduntzera bideratzen baita, genero-ikuspegitik.



MARIA IBARRETXE eta **ALAITZ ARENZANA**K eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektibo artistikoa. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako artea,

eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofía Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.

////////////////////////////////////

Ekainak 22, asteartea

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

 cargocollective.com/srapolaroiska

 [sra polaroiska](#)